

## **Gazteen partaidetza aktiboa bultzatu**

Jarduera, gazteen partaidetza aktiboa sustatzeko diseinatua dago eta bi bide jarraituz jorratuko da:

a) Antzezpen beraren bidez. "Lotsagabe - Sin vergüenzas"-ek nerabeen egoera psikosexualak direla eta, dituzten esperientziak kontuan hartuz, emozioetara jotzen du zuzenean. Obraren indarrak ez datza ezagutza multzo baten igorpenean, baizik eta pertsonaien identifikaziotik emango den transmisio emozionalean.

Emanaldiak, antzerkiaren baliabide dramatiko guztiak ikusleen introspektzioaren zerbitzura ipintzen ditu. Modu honetara, sare sozialen distortsioaren, sexuaren gehiegizko komertzializazioaren eta komunikabideek sexualitatearen inguruan eragindako alarmaren aurrean, gogoeta lasai eta partekatu bat egiteko gonbitea luzatzen da.

b) Antzezpenaren ondoren burutuko den solasaldiaren bidez, non zalantzak, ekarpenak, sentimenduak, argibideak etab. profesional baten laguntzarekin partekatuko diren eta izandako bizipena hausnartu eta modu egokion itxiko den.

## **Oinarri pedagogikoak**

"Lotsagabe - Sin vergüenzas" antzezlana, Eusko Jaurlaritzak hezkuntza sexualerako duen programaren ildo pedagogiko berdinean kokatzen da eta jarduera osagarri moduan ulertu daiteke. Obraren funtsa eta edukiek Javier Zapiain-en (SEXUMUSU programaren sortzaile eta zuzendaria) aholkularitza jaso dute.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 12 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat pentsatua dago.

Antzezlana ondorengo irizpideak jarraituz eraiki da:

a. Hezkuntza sexualak, ikasleei, beraien behar afektibo eta sexualak zein diren antzematen lagunduko dien prozesua izan behar du.

b. Beraien beharrak kudeatzen jakin eta horien inguruko erabakiak hartzeko gaitasuna handitzen lagundu behar du.

- c. Desira erotikoa funtsean emozio bat denez, hezkuntza sexualak emozioak erregulatzeko gaitasuna handitzen lagundu behar du.
  
- d. Hezkuntza sexualak pertsonen autonomia garatzen lagundu behar du
  
- e. Hezkuntza sexualak, lotura afektiboak (zein eredu eta apego modu ditugun) norberaren esperientzia erotiko sexualaren intimitatean duen garrantzia kontuan hartzen du.
  
- f. Hezkuntza sexualak, ikasleen egungo eta etorkizuneko jarrera sexualak gidatuko dituen "jokoaren arauak" zehazten lagundu behar du. Arau horiek, Salamancako Unibertsitateko Psikologian eta Sexualitatean Katedraduna den Félix López Doktoreak proposatutako maitasun eta sexu harremanen etikan oinarritutako printzipioak dira: Onarpenaren etika, partekatutako plazerrarena, leialtasunarena, lotura eta desloturarena, osasunarena, berdintasunarena.
  
- g. Proiektu honek ikastetxeentzat euskarri, laguntza eta lankidetzarako proposamena izan nahi du. Azken finean, eskoletako kurrikuluma aberastu nahi duen jarduera gehigarri honek, emozioen kudeaketa eta esperientzia afektibo sexuala du hizpide eta ez ikastetxeari dagokion ezagutzen igorpena.

### **Berdintasuna eta aniztasuna**

"Lotsagabe - Sin vergüenzas"-ek bereziki kontuan hartzen du pertsonen arteko berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua. Obra, norberaren autonomia eta nortasunari bultzada emateko pentsatu da, betiere, genero ikuspegia txertatuz. Tradizio sexistak, emakumeek beraien sexualitateari lotutako erabakiak hartzeko askatasun eta autonomian dituen eragin negatiboak ezabatzeko ahalegina egiten du. Berdintasun eta leialtasunaren etikatik abiatuta, behar afektibo eta sexualen esparruan ematen diren emakume eta gizonen arteko botere desorekak ezabatzen ahalegintzen da.

Antzezlanak bereziki zaindu nahi du aniztasun sexualaren aberastasuna. Azken hau, sexu, genero eta orientazio sexualaren arabera munduan kokatzeko modua bezala ulertzen da.

## **Ikastetxearekin elkarlanean**

Egitasmoak hezkuntza profesionalekin (irakasleak, orientatzaileak, Berritzeguneetako aholkulariak...) topaketa bat antolatzeko aukera eskaintzen du ikastetxe guztiek eskuragarri duten SEXUMUSU proiektuarekin loturak ezartzeko <https://www.euskadi.eus/informacion/sexu-muxu/web01-a2osabiz/es/>

Ikastetxeei txosten pedagogikoa berrikusteko gonbitea luzatuko genieke, agian, antzezlanak ikusi aurretik bertan jasotzen diren edukiak lantzea interesgarri izan daitekeelako.